



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

**CELSO RODRÍGUEZ PADRÓN, BOTERE JUDIZIALAREN
KONTSEILU NAGUSIAREN IDAZKARI NAGUSIA,**

**ZIURTATZEN DUT: BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU
NAGUSIAREN OSOKO BILKURAK, DATAREN EGUNAREN BERE
BILERAN, EKONOMIA JASANGARRIAREN LEGEAREN
AURREPROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA ONARTU DUELA,
BOTERE JUDIZIALAREN UZTAILAK 1EKO 6/1985 LEGE
ORGANIKOA ALDATZEN DELARIK, ONDORENGO EDUKI
LITERALEKOA IZANEZ**

I.

AURREKARIAK

2010eko urtarrilak 15eko datarekin Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren (aurrerantzean BJKN) Erregistroan sarrera izan du Ekonomia Jasangarriaren Legearen Lege Organiko osagarriaren Aurreproiektuaren testuak, Botere Judizialaren uztailak 1eko 6/1985 Lege organikoa aldatzen delarik (aurrerantzean BJLO), Justizia Ministerioak igorritakoa, Kontseilu honen aldetik nahitaezko txostenaren igorpenaren xederako.

Ikerlan eta Txostenen Batzordeak, Margarita Robles Fernandez Andere Txit Agurgarria txostengile izendatzea erabaki zuen, eta 2010eko otsailak 18ko dataren bileran, ondorengo txostena onartu zuen, Kontseilu honen Plenoari bere igorpena hitzartuz.



II.

BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIAREN KONTSULTA EGINKIZUNARI BURUZKO KONTSIDERAZIO OROKORRAK

“Arau prozesalak edo funtsezko eskubideen erabileraren ohiko Auzitegien aurrean babesaren aspektu juridiko-konstituzionalak eragiten dituzten eta Epaitegi eta Auzitegien eraketa, antolaketa, funtzionamendua eta gobernua eragiten dituzten beste edozein”, aipatutako legezko aginduan adierazitako beste materia batzuen artean, guztiz edo partzialki eragiten dituzten Estatuaren eta Autonomi Erkidegoen lege aurreproiektu eta xedapen orokorrak ditu helburu, BJLOren 108garren artikulua hitz egiten duen BJKNren kontsulta eginkizunari buruzkoak.

Legezko xedapen hau kontutan hartuz, espezifikoki Aurreproiektuan sartzen diren benetako arau edo arau prozesaletara mugatu beharko du bidalitako Aurreproiektuari buruz Organo konstituzional honi ematea dagokion iritzia, Botere Judizialaren edo honek emanda daukan arduraren funtzio jurisdikzionalaren erabilerak ez diren gaiei buruzko edozein kontsiderazio saihestuz.

Hala ere, funtsezko eskubideak eta askatasunak eragiten dituzten Aurreproiektuaren aspektuei buruzko bere iritzia adierazteko gaitasuna erreserbatzen du BJKNk, Konstituzio Espainiarraren (KE) 53garren artikulua xedapen zehatzagatik posizio nagusiaz eta berehalako



eraginkortasunaz gozaten dutenaren arrazoiagatik. Puntu honetan Auzitegi Konstituzionalaren, zeinaren emandako epaiek BJLO 5.1garren artikuluan jarritakoaren arabera epaile eta auzitegi guztiak lotetsiz agindu eta printzipio konstituzionalaren interpretazio zuzena osatzen baitute mota guztietako prozesuetan, erabakietatik bereziki abiatu behar da Konstituzioaren gorenko interpretatzaile moduan.

Azkenik, organo konstituzionalen arteko lankidetzaren printzipioaren arabera, testu arauemaileen zuzenketa hobetzen laguntzeko xedearekin, legegintza teknika edo terminologia ordenari buruz bereziki, BJKN beste kontsiderazio batzuk, erlatiboak, egiteko aukera adierazten ibili da bere txostenetan eta, beraz, prozesu judizialean bere baliogarritasun eraginkorrari buruz, organo jurisdikzionalak baitira, azken beltzean, behin organo eskudunak onartuta, Kontseilu honen txostenpean dauden arauak geroago ezarri beharko dituztenak.

III.

TESTUINGURUTZE ETA AURREPROIEKTUARI BURUZKO KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Ofizio berdinean bidalita Justizia Ministerioaren eskaeraz, txostenpean jarritako Aurreproiektua Ekonomia Jasangarriaren Legearen (aurrerantzean EYL) Lege Organiko osagarri batena da, zeinaren Aurreproiektua era berdinean Kontseilu honen txostenpean jarrita izan da aldi berean. Bere edukia hain zuzen beste arau horren zergaduna da, eta bereziki bere lehen azken xedapenarena, bosgarren atala, 29/1998 Legearen 9. artikulua aldatzea aurreikusten dena,



uztailak 13koa, Administrazioarekiko Auzi Jurisdikzioko (AAJ) arautzailea, zeinaren edukia orain adierazitako Aurreproiektuaren artikulua bakarraren ia berdina baita. Horrela aipatzen du honen Arrazoien Erakusketak, “Ekonomia Jasangarriaren Legean sartzen diren neurrien garrantziak zailtasunez utzi liezaioke eragiten gure Konstituzioak bermatzen duen babesa judizialari eta bere garapenean Botere Judizialaren, uztailak 1eko, 1/1985 Lege Organikoaren funtsezko eran irudikatzen dena”, hala ere, Arrazoien Erakusketa berak esaten jarraitzen duen bezala, eragite hori zirkunskribatzen da bereziki “jabetza intelektualaren babesa hobetzea bilatzen dituzten neurrietara, epaileei kompetentziak ematek nahi eta nahiez pasa behar dutenak”, puntualizatzen lotuen kontsideratu den aukera kompetentzia hori, Ekonomia Jasangarriaren Legean araututa dagoena, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusietara ematea dela. Sumatzen da ba zein den azterketapean orain jarritako Aurreproiektuaren benetan laburra den edukia, hau da: bere artikulua bakarraren bitartez, BJLOaren 90garren artikulua 5garren atal berri baten agregazioa, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiei kompetentzia berri bat emateko, Informazio Gizartearen eta Merkataritza Elektronikoen Zerbitzuen, uztailak 11ko, 34/2002 Legean (IGMEZL) aurreikusitakoarekin konforme hartu ahal daitezkeen neurriak, jabetza intelektualetik kalte egiten duen eduki bat erretiratzeko edo informazioaren gizartearen zerbitzu baten prestazioa eteteko Batzordeak –bereziki bere Bigarren Sekzioak– hartu zitezkeen neurrien burutzea baimentzean datza edo ez, jabetza intelektualaren eskubideen babeserako Jabetza Intelektualaren Batzordeari (aurrerantzean JIB) ematen zaizkion berriak ere diren kompetentziekin loturan.

Prestatutako lege erreforma jabetza intelektualaren eskubideen babesa indartzen saiatzen da, informazioaren gizartearen eremuan



kalte egiten duten ekintzen aurka bereziki, JIBren aurrean jarraitutako prozedura administratibo baten bitartez, Jabetza Intelektualaren, azaroak 11ko, 22/1987 Legearen onarpenetik existitzen zetorren organoa (JIB), gero apirilak 12ko 1/1996 Errege Legegintza Dekretuak moldatua (aurrerantzean JILRT), baina kompetentzia berriez hornitzea aurreikusten dena eta bi Sekzioetan estrukturatzea, bigarrenari emanaz jabetza intelektualaren eskubideen babesaren funtzio berria. Orain arte Batzorde hau bitarteko eta arbitraje funtzioen kargu ari zen (Jabetza Intelektualaren Batzorde Bitarteko eta Arbitrala izendatu zen hain zuzen ere JILRTaren erreformaren uztailak 7ko 23/2006 Legearen bigarren xedapen gehigarriagatik sartutako izen aldaketa arte, zeintzuk orain haien Lehen Sekzioan sartzea aurreikusten baita. Beraz, JIBren Bigarren Sekzioaren aurrean jarraitutako prozedura horren esparruan da, eta EYL Aurreproiektuaren lehen azken xedapenaren laugarren atalak aipatzen du, JILRTaren 158garren artikulua aldatzea aurreikusten dena, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusien parte-hartzea jasotzen den horretan, 20 KE artikuluan onartutako eskubide eta askatasunei hartutako neurriek ez dietela eragingo era berdinean bermatzeko.

Informazio gizartearen eremuan jabetza intelektualaren eskubideen eraginkortasunari eta hau lortzeko onenak diren tresnei buruzko eztabaidaren testuinguruan kokatzen da proiektatutako erreforma. Informazioaren gizartearen eremuan jabetza intelektualaren eskubideen babes zibila aktibatzearen aukeretan eragiten duen doktrina, eskatzen dioten Epaille edo Auzitegien edo Fiskaltza Ministerioaren eskura jartzearen, eta zein bere zerbitzuen prestazioan zehar ezarritako komunikazioengatik sortutako lotura datuak eta trafikoa gordetzearen informazio gizartearen bitarteko zerbitzuen mailegatzaille batzuen betebeharra, segurtasun publikoaren eta defentsa nazionalaren



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

babeserako edo, zigor izaerako ikerlanen esparrua bakarrik mugatu zezan Estatu kide batek Eskubide komunitarioarekin ados kontsideratu zenagatik, *Promusicae Telefónica*ren aurka kasuan emandakoa, 2008ko urtarrilak 29ko Europako Erkidegoen Justizia Auzitegiaren Epaia (C-275/06) nabarmen izango zen bezala, gai honetan orain dela gutxi gertatutako zenbait gertaera gogoangarrietaz ezin da deskonektatu.

EJL Aurreproiektuaren Txostenean mutur guzti hauei buruzko geroko kontsiderazioak daude, honi dagokionez –biek aipatzen dituzten legeak bezala- Txosten hau osagarritasun erlazioan dago.

IV.

AURREPROIEKTUAREN EDUKIAREN AZTERKETA

Aurreproiektuaren eduki murrizta dela eta, azterketa bere artikulua bakarrera zirkunskribatzen da, zeinek aldi berean BJLOren 90garren artikulua aldaketa baitauka, 5garren atal berri bat gehitzeko asmoz, ondorengo terminoetan:

“5. *Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiei dagokie baimentzea ere, auto bitartez, Jabetza Intelektualaren Batzordearen Bigarren Sekzioak hartutako erabakien zuzeneko burutzea informazioaren zerbitzuen prestazioa eteteko edo jabetza intelektualari kalte egiten dioten edukiak kentzeko, informazioaren gizartearen zerbitzuen, uztailak 11ko, 34/2002 Legearen aplikazioan hartutakoak*”.



BJLOaren egungo 90garren artikulua lau atalez osatzen da, hauetako laugarrenak, “Madrilgo herrian” eta “jurisdikzioarekin Espainia guztian”, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusien existentzia aipatzen ditu, zeintzuk “legeak ezartzen dituen terminoetan, lurralde nazional guztian konpetentzia daukaten, agintaritza, erakunde, organo eta entitate publikoetatik etorritako xedapen eta egintzen aurka administrazioarekiko auzien baliabideen, lehen edo instantzia bakarrean, ezagutuko baitituzte”. Proiektatutako aldaketak beraz organo hauei konpetentzia gehigarri bat emango zien, ez zela agintaritza edo organo administratibo batetik etorritako egintza edo xedapen baten errekursoaren ezagutzan oinarrituko, hortik ateratzen da berezko atal batean eratzeko egokitasuna, aurretik dagoenaz bananduta. Jakina, organo administratibo batetik etorritako aurretiko jarduera eta erabaki batekin esku-hartzeak zerikusia duen bitartean, ez dago zalantzarik gai hauen ezagutzarako Administrazioarekiko Auzien ordenaren organoak izan behar direla eskudunak.

Beste alde batetik, lurralde nazional guztian konpetentzia duen organo administratibo batek hartutako erabakiei buruzkoa da konpetentzia, JIB den bezala. Gogoratu dadila jabetza intelektual kontuetan Estatuari eskusiboki dagokiola legegintza konpetentzia, KE 149.1.9garren artikulua araberak. Azaroak 13ko, bere 196/1997 epaian, Kultura Ministerioaren menpeko organo bakar bat izateak ez dio konpetentzien orden konstituzionalari kalterik egiten, kontutan izanik jabetza intelektual kontuetan Autonomi Erkidegoek estatuko legegintzaren burutzean dituztela bakarrik konpetentziak. JIBri emandako funtzioei eta bereziki izaera arbitralekoari dagokionez, epai honek esaten du bere 12garren Oinarri Juridikoan: “KE 149.1.9garren



artikuluak Estatuari ematen dion legegintzaren kompetentziak, honi baimentzen dio, arrazoitu dugun bezala, jabetza intelektualaren erregimen juridiko osoa ezartzea eta, beraz, mekanismo honen ezarpena bertan planteatutako arazoan irtenbiderako. Baina, gainera, helegitea aurkeztutako araua sartzen da baita eragin kompetentzialetan, "legegintza prozesal"aren esparruan (KE 149.1.6garren artikulua) "Justizia Administrazio"arenan (KE 149.1.5garren artikulua), Auzitegi honek nabarmentzeko aukera izan duen bezala, "arbitrajea baliokide jurisdikzional bat izanda, zeinaren bitartez aldeek jurisdikzio zibilaren bitartez lortutako helburu berdinak lor ditzakete, hau da, epaitutako gauzaren eragin guztiekin gatazkari amaiera emango dion erabaki baten lorbidea, agerikoa da mota arbitraleko organoen sorrera eta esandako prozeduraren ezarpena legegintza prozesal zibilaren berezko gaia dela, erlazionatuta, laudo arbitral eta baliabide sistemaren eraginei dagokionez, Justizia Administrazioarekin" (SSTC 15/1987 [RTC 1987/15], 9garren oinarri juridikoa, b); 62/1991 [RTC 1991/62], 5garren oinarri juridikoa)". Egoera honetan, egokia kontsideratu behar da etorkizuneko JIBren Bigarren Sekzioak hartutako erabakien zuzeneko burutzea baimentzeko aukeratutako organoak izan daitezela zehazki, Administrazioarekiko Auzien ordenari dagozkion guztien artean, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiak, haien jurisdikzioa lurralde nazional osora zabaltzen da eta.

Informazioaren gizartearen zerbitzu baten prestazioa eteteko edo eduki bat kentzeko, JIBk hartutako erabaki baten zuzeneko burutzea baimentzeko izango da aipatutako kompetentzia, batak edo besteak jabetza intelektualari kalte egiten diotenean. Honek esan nahi du aurretiko izaerarekin egokitu behar izan duela erabaki administratiboak, prozedura urgazlea bukatuta izanda eta aipatutako erabakiak esandako neurrien burutzearen zain bakarrik egonda, hori dena bere aldetik



erabaki hura errekurtsio objektu izan zitekeela kontutan hartu gabe, dagoeneko hartutako neurriaren burutzearen paraleloan joan daitekeena. EYL Aurreproiektuaren Txostenean –puntu honetan igortzen duguna– JIBk adostutako neurriak kautelazko fasean izatearen aukerari buruzko kontsiderazio batzuk egiten dira, eta beraz oraindik bukatu gabe dagoen prozeduraren etapa horretan Epaitegi eskudunaren baimena lortu beharko zen. Baztertu behar ez den hipotesi bat da, JIBren Bigarren Sekzioaren aurrean jarraitu beharreko prozedura ez dela legalki definitua ikusita, gaia JILRTren 158garren artikulua geroagoko arauzko garapen batera igorritz (JILRTren 158.4garren artikulua azkeneko paragrafoa, EYLren 4garren ataleko lehen azken xedapenaren arabera proiektatua).

Baina kontsiderazio horretatik haratago, orain aztertzen dugun aurreikuspena adostasunean dago Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoen eta Prozedura Administratibo Komunaren (APE-PAK), azaroak 26ko, 30/1992 Legean jakinarazten denarekin. Bere 93garren artikulua arabera, “Administrazio Publikoek ez dute partikularren eskubideak mugatzen dituzten erabakien burutzeen zuzeneko jarduerarik hasiko oinarri juridiko bezala baliagarri zaion erabakia hartuta izan aurretik”, aginduak “hartutako erabakiei” buruz hitz egiten duen neurrian hemen guztiz konponduta kontsideratu behar den muturra. Bere aldetik, lege berdinen 94garren artikulua erregela orokor bezala egintza administratiboek daukaten berehalako burutzea aldarrikatzen du, APE-PAKren 111garren artikuluan aurreikusitakoaren arabera errekurtsio baten erabakiaren esparruan burutzearen gabetzea hitzartu daitekeen kasuetan ezik, edo “xedapen batek kontrakoa ezartzen duen kasu haietan edo onarpena edo maila goreneko baimena behar duenean”. Linea honetan, APE-PAKren 95garren artikulua “Administrazio Publikoak, kasu bakoitzean organo eskudunen bitartez,



ekin ahal izango dute, aurretiko ohartarazpenarekin, egintza administratiboen nahitaezko burutzerak adierazten du, nahiz eta onik uzten duen “legearen arabera burutzea gabetzen direneko suposizioak, edo Konstituzioak edo legeak Auzitegien esku-hartzea eskatzen dutenean”. Zalantzarik gabe, txostenpean dagoen arauan aztertutako kasua bat etorriko zen azkeneko aurreikuspen honekin.

Gauza desberdina da Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiei ematea aurreikusita dagoen atribuzio berria (JIBren Bigarren Sekzioak hartutako erabakien zuzeneko burutzea baimentzea) organo horiei emandako konpetentzien zerrendan momentu hontara arte adierazita ez dagoen modalitate bati dagokio, berrikusten baldin bada bai BJLOren 90garren artikulua 4garren atala, bai AALren 9garren artikulua, egintza edo erabaki administratiboen kontra ondorioztatutako errekurtsioen ezagutzaz hitz egiten da eta kasu guztietan. Hala ere, aurretiko izaerarekin organo administratibo batek hartu ahal izan dituen neurriak berretsi edo baimentzeko Administrazioarekiko Auzien ordenaren organoei konpetentzi esleipena, gure legegintzarekin zerikusia daukate, nahiz eta gaur egun aztertutako kasuek orden horri dagozkion beste organo judizialen konpetentziekin zerikusia duten, Administrazioarekiko Auzien Epaitegien kasua izango zen bezala, zeintzuei, adibidez, bizileku eta beste lekuetan, zeinaren sarbideak bere titularraren baimena eskatzen baitu, sartzea baimentzeko konpetentzia ematen zaie, Administrazio publikoaren egintzen nahitaezko burutzea ekiten duenean (AALren 8.6garren artikulua), agintaritza eskudunek osasun publikorako beharrezkoak eta urgenteak kontsideratzen dituzten eta gabezia edo askatasun edo beste funtsezko eskubide baten murrizketa berarekin dakartzaten (AALren 8.7 artikulua) neurriak baimendu edo berretsitzeko konpetentzia, edo Konpetentziaren Batzorde Nazionalak adostutako bizileku, lokal, lursail eta garraiobideen



ikuskapenen sarrerarako baimenak ezagutzeko konpetentzia, esandako sarbideak eta ikuskapenak bere titularraren onarpena eskatzerakoan, honek aurka egitea edo aurkakotasun horren arriskua egotea (AALren 8.8garren artikulua). Txostenpean jarritako arauan Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiei konpetentzia ematen zaienaren diferentziarekin, arriskuan dauden eskubideen eta organotik datorren erabakiaren lurralde eremua dela eta, BJLOren proiektatutako 90.5garren artikulua adoretzen duen izpiritua esleitutako aginduen oso berdintsua da, burutze egoitzan kontrol judicial bat edo Administrazioaren zehaztutako organoak hartutako neurrien zuzeneko artikulazioa ezartzeko zentzuan, esandako neurriak eragitera doazenean –edo eragin dezaketenean- zenbait eskubide edo funtsezko askatasun, KE 18.2garren artikulua bizilekuaren bortxa ezintasun eskubidearekin adibidez aipatutako kasuetan konektatzen direnak, eta proiektuan dagoen suposizioan KE 20 artikulua eskubide eta askatasunekin zerikusia izango luketenak, ondorioztatzen den bezala ez orain informatutako Aurreproiektuaren agindu bakarreko testutik, baizik eta EJLren Aurreproiektuaren lehen azken xedapenagatik aldatzea aurreikusten den aginduen pasarte askorengatik, JILRTren 158.4garren artikulua bezala adibidez, edo AAELren 122 bis.2garren artikulua berria.

Aipatutako neurrien burutzea baimentzea edo ez iristen den orduan Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiek jarraitu beharreko prozedurari dagokionez, informatutako arauak aurreikusten duen guztia aipatutako organoak auto bitartez ebatzi beharko direla da. Hori onargarria da horri buruz zehaztasun handiagoak ezartzeko egoitza egokia BJLO ez delako baizik eta AAEL, bien bitartean Administrazioarekiko Auzien ordenan espezializatutako prozeduraren legea, hain zuzen ere EJLren Aurreproiektuaren 7garren atalaren lehen



azken xedapenaren arabera honetan eta beste puntu batzuetan aldatzea aurreikusten dena baita. Esandako erreforma AAELn 122 bis artikulua berri bat gehitzea izango zen, aipatzen ari garen baimen judizialaren lorbiderako ekiteko era edukiko zuena. Honen gauzarik nabarmengarriena lau egunetako epe luzaezinean Epaitegiak ebatzi dezala da, auto bitartez neurria baimentzen edo ukatzen, eta alderdi interesatuekin entzutegi baten egitearen ondoren. Esandako autoa apelatzeko aukera egongo da Entzutegi Nazionalaren Administrazioarekiko Auzien Aretoaren aurrean ekintza bakar batean, aldaketa betez, AAELren 80.1 artikulua EYL Aurreproiektuan aurreikusita ere. Proiektatutako beste arau guzti hauek azterketa objektu izango dira beste Aurreproiektu horri dagokion txostenean, dagoeneko hainbeste aldiz aipatutakoa.

Beste gai bati buruz, eta lankidetzaren instituzionalaren printzipioaren perspektibatik, testu araugileen zuzenketa hobetzen laguntzeko helburuarekin eta, beraz, prozesu judizialean bere aplikagarritasun eraginkorra, egokia dirudi txostenpean jarritako testuan sartutako akats batzuei buruz ohartaraztea, edo legegintza teknika garbiko gaiak, aipatutako terminoak proiektatutako artikulua gorputzean agertzen diren ordenan azalduko dira:

- “Administrazioarekiko auzien Epaitegi Nagusiak” esaten duen lekuan “Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusiak” esan beharko luke, marra batez bananduta dauden bi hitzei maiuskula jarritz, orden juridikzional honi dagozkion organoak izendatzeko balio dutenak..



- “Hartutako erabakian zuzeneko burutzea” esaten duen lekuan “hartutako erabakien zuzeneko burutzea” esan beharko luke, pluralaren gramatikagatik.
- “Informazioaren zerbitzuen prestazioa” esaten duen lekuan “informazioaren gizartearen zerbitzuen prestazioa” esan behar du, hau baita eta ez bestea KEGZILgatik erabilitako termino legal zuzena.
- “Edo edukia kentzeko” esaten duen lekuan, “edo edukiak kentzeko” esan behar du, pluralaren gramatikagatik.
- “Hartutako” hitzaren bigarren agerpena (“34/2002 Legearen ezarpenean hartutakoak ...”) erredundantea da eta kendu beharra dago, “Jabetza Intelektualaren Batzordearen Bigarren Sekzioagatik hartutako erabakien zuzeneko burutzea (...)”ren aginduaren bigarren lerroan hitz egiten baita, uztailak 11ko 34/2002 Legearen ezarpenean izan behar izan duen erabaki horien hartzea zehazteko hitz hori berriro idaztea ez da beharrezkoa.
- “Informazioaren gizartearen zerbitzuen, uztailak 11ko, 34/2002 Legea” esaten duen lekuan, “Informazioaren gizartearen zerbitzuen eta komertzio elektronikoaren, uztailak 11ko, 34/2002 Legea” esan behar du, hau baita bere izendapen osoa.

Azkenik, azpimarratu behar da nahiz eta Aurreproiektu hau Gobernuaren Legearen 22.2 artikuluan aurreikusitako memoria eta txostenekin batera aurkeztua izan ez den, aipatzen duen legeak daukan



izaera osagarria kontutan hartu behar dela, eta beraz aintzat hartu behar da osatutako legearen Aurreproiektua, hau da EYL, dagokion Memoriarekin batera aurkeztua izan dela, kasu honetan Eragin Arauemailearen Azterketa Memoria oso bat dena, zeinetan, uztailak 3ko 1083/2009 Dekretu Errealean aurreikusitakoaren arabera (esandako aurreproiektuak betetzen duena, nahiz eta indarrean sartu aurretik garatzen hasia izan den) proiektutako arauen behar eta aukerei buruzko memoria ikerlan eta txostenak biltzen dira, memoria ekonomikoa eta genero arrazoiagatik eraginari buruzko txostena bezala. Egia da Memoria horretan, eta bereziki eragin ekonomiko eta aurrekontu eraginaren azterketari buruzko zatian, proiektatutako BJLOren 90.5 artikulua arabera emandako konpetentzia berritik Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusietako pilaketaren ondorioa izan daitekeen eragina era espezifikoan ez dela aintzat hartzen, Kontseilu honi bereziki interesatuko zitzaion gaia dela, horrelako atribuzio bat lan karga gehigarri baten emaitza izan daitekeelako, Epaitegi horien azalera handitzeko eta errefortzu neurri batzuk ezartzeko beharraren ondorioa izan zitekeena agian. Jakina, EYL bezalako hain Lege zabal eta heterogeneo baten eragin ekonomiko eta aurrekontu eragina zehaztearen zailtasunaz jabetzen da Organo hau. Hala ere, desiragarria izango zen, Eragin Arauemailearen Azterketa Memoria berean aurreikusten den bezala (51garren orrialdea), lanbide, iharduera eta prezio terminoetan proposatutako erreformen eragina kontutan izan ditzan mota kuantitatiboko azterketa bati ekitea –nahiz eta geroago izan–. Gutxienez, gai honetan kalkulatu den JIBk bideratu eta erabaki beharreko urteroko prozedura administratiboen zenbatekoari buruz aipamen bat egin zitekeen –gutxi gorabeherakoa behintzat–, kopuru hori hartuz, Administrazioarekiko Auzien Epaitegi Nagusien aldetik zenbat esku-hartze beharrezko izango lirakekeen ezartzeko.



BOTERE JUDIZIALAREN KONTSEILU NAGUSIA

Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiak informatu beharreko guztia da.

Eta jasota geratu eta eraginak izan ditzan, honakoa bete eta sinatzen dut Madrilen, bi mila eta hamarreko urtarrilak hogeiei eta zortzian.